

Laudio



Llodio

OBRA, ZERBITZU ETA MANTENTZE-LANEN ARLOA
Tif.: 94 403 4860 / Fax.: 94 403 4754

ÁREA DE OBRAS, SERVICIOS Y MANTENIMIENTO
obras@audiokoudala.net

Herriko Plaza
01400 Laudio / Llodio (Araba / Álava)
www.laudiokoudala.net

LAUDIO UDALEKO UDAL ORDENANTZA

TURISMO AUTOMOBILETAN PERTSONA BIDAIARIEN HIRI GARRAIO ZERBITZUAREN (TAXIA) ORDENANTZA ARAUTZAILEA



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2-4
I. TITULUA. ARAU OROKORRAK	5-6
1. artikulua. Ordenantzaren helburua eta xedea	5
2. artikulua. Definizioak.	5
3. artikulua. Zerbitzuaren printzipio gidariak	5-6
II. TITULUA. LIZENTZIAK ETA BAIMENAK	6-14
I. Kapitulua. Izaera juridikoa	6-7
4. artikulua. Garraioko lizentziak eta baimenak	6
5. artikulua. Lizentzia motak	6-7
II. Kapitulua. Lizentziak ematea eta horren Erregistroa	7-8
6. artikulua. Lizentzia kopurua. - Emate prozedura	7-8
7. artikulua. Lizentzien Erregistroa	8
III. Kapitulua. Lizentziaren ustiapena	8-12
8. artikulua. Lizentzia kopurua.....	8-9
9. artikulua. Horretarako bakarrik	9-10
10. artikulua. Soldatapeko gidariak	10-11
10 bis artikulua. Pertsona gidariaren sinestamendua, egiaztagiria	11-12
IV. Kapitulua. Lizentziak eskualdatzea	12-13
11. artikulua. Lizentzien esku-aldagarritasuna	12-13
V. Kapitulua. Lizentziak iraungitzea	13-14
12. artikulua. Lizentziak iraungitzea eta baliogabetzea	13-14
III. TITULUA. IBILGAILUAK	14-18
I. Kapitulua. Arau orokorrak.	14-15
13. artikulua. Lizentziari atxikitako ibilgailua	14-15
II. Kapitulua. Atxikitako ibilgailua ordezte eta eskualdatzea	15
14. artikulua. Ordeztea. Ordezko ibilgailua	15
15. artikulua. Ibilgailua eskualdatzea	15
III. Kapitulua. Ibilgailuen bereizgarriak	16
16. Artikulua. Bereizgarriak	16



IV. Kapitularia. Ibilgailuen bereizgarriak	16-17
17. artikulua. Ibilgailuen baldintza fisikoak	16-17
V. Kapitularia. Udal ikuskapenak eta azterketak	15-16
18. artikulua. Aldez aurretiko, ohiko eta aparteko ikuskapenak	17
19. artikulua. Udalaren ikuskapen funtzioa	18
IV. TITULUA. ZERBITZUA EMATEA	18-22
I. Kapitularia. Zerbitzua emateko beharrezko diren dokumentuak	18-19
20. artikulua. Ibilgailuen dokumentazioa	18-19
II. Kapitularia. Geralekuak	19-22
21. artikulua. Geralekuak	19-20
22. artikulua. Zerbitzua eskatzea	20-21
23. artikulua. Zerbitzuaren ibilbidea	21
24. artikulua. Erregia botatzea ibilgailuari	21
25. artikulua. Gauzak edo animaliak garraiatzea	21-22
26. artikulua. Galdu eta topatutakoak	22
27. artikulua. Istripuak eta matxurak	22
28. artikulua. Ordaintzea eta itxarote-denbora	22
V. TITULUA. TARIFAK ETA KONTROL-TRESNAK	22-24
29. artikulua. Tarifa araubidea edo erregimena	22-23
30. artikulua. Taximetroa	23
31. artikulua. Funtzionamendua	23
32. artikulua. Taximetroaren ohiko azterketa.	24
33. artikulua. Taximetroaren ez ohiko -aparteko- azterketa.	24
34. artikulua. Akatsak eta hutsak	24
VI. TITULUA. ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK	24-25
35. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak	24-25
36. artikulua. Erabiltzailearen betebeharrak	25-26
37. artikulua. Debekuak	26
VII. TITULUA: ZIGORTZEKO ERREGIMENA EDO ARAUBIDEA	26-30
38. artikulua. Arau-hauste kontzeptua eta araubide juridikoa	26
39. artikulua. Sailkapena	26
40. artikulua. Arau-hauste oso larriak	26-27



41. artikulua. Arau-hauste larriak	27-28
42. artikulua. Arau-hauste arinak	28-29
43. artikulua. Zigorrak	29
44. artikulua. Arau-hauste eta zigorren preskrpzioa	29
45. artikulua. Eskumena eta prozedura	30
46. artikulua. Ibilgailua gelditu atxikitzea	30
LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA	30
BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA	30
LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA. Gidari sinestamendua edo egiaztagiria lortzea ordenantza hau indarrean sartzen denean.	30-31
BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. Udal lizentziaren titulartasuna eta pertsona juridikoaren hiri-arteko baimena	31
HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. Udal hiri lizentzia bat eta hiri-arteko baimen bat baino gehiagoren titulartasuna.	31





I. TITULUA ARAU OROKORRAK

1. artikulua. ORDENANTZAREN HELBURUA ETA XEDEA

Ordenantza honen helburua da arautzea Laudio Udalak emandako lizentzia duten bidaiariak herri barruan turismo ibilgailuz garraiatzeko zerbitzua -aurrerantzean taxi zerbitzua- eta taximetro kontadoreaz hornituta daudenak.

Ordenantza hau aplikatuko zaie taxi guztiei, bidaiariak hiri barruan autoz garraiatzeko udal lizentzien jabeek (taxilariak) eta Laudio Udalak emandako lizentzia jabe izanik auto horien pertsona gidariei, hau da, baita taxi zerbitzu hori erabiltzen duten pertsona guztiei ere.

Edozein kasutan ere, honako Ordenantza honetan adierazitako Laudio udalerrri barruko ibilbideak, ulertu behar dira Aiarako Koadrila barrukoak direla, Taxi Zerbitzuaren Prestazio Bateratuko Lurralde Esparru legez.

2. artikulua. DEFINIZIOAK.

Ordenantza honen eraginpean, ulertu behar da:

a) Taxi-zerbitzuak: Taxi-zerbitzuak dira bidaiariak bederatzi plazarainoko gaitasuna duten ibilgailuekin garraiatzen direnak, gidatzen duen pertsona berru eta zerbitzu horiek truke tarifa izeneko prezioa ordaindu behar izaten da..

b) Herriko taxi-zerbitzuak: zerbitzu horiek dira udalerrri barruan soilik dabilzanak.

c) Herriz kanpoko taxi-zerbitzuak lirateke: b) hizkiaren definizioan sartzen ez direnak.

3. artikulua. ZERBITZUAREN PRINTZIBIO GIDARIAK

Taxi-zerbitzuaren jarduna ondoko printzipioen arabera izan behar da:

a) Zerbitzuaren unibertsaltasuna, iriste erraztasuna eta jarraitutasuna.

b) Erabiltzaileek kalitateko zerbitzua izateko duten eskubidea eta lizentzien jabeek lan baldintza eta diru-sarrera duinak izateko duten eskubidea.

c) Administrazioaren esku-hartzea, zerbitzua emateko orduan ahalik eta kalitaterik hobereana lortze aldera interes publikoa bermatu beharrean oinarritua.

d) Udalaren eta lizentzien jabeen arteko lankidetzeta, zerbitzua emateko modua hobetze aldera. Hala, arreta berezia eskainiko zaio, Sektoreko Elkarrekin batera, Teknologi berrikuntza egokienak gero eta gehiago ezartzeko sustapena egiteko, taxi-zerbitzuen prestazioa eta segurtasun baldintzak hobetzeko helburuaz.

II. TITULUA LIZENTZIAK ETA BAIMENAK



I. KAPITULUA Izaera juridikoa

4. artikulua. GARRAIATZEKO LIZENTZIA ETA BAIMENA.

1. Lizentzia titulu juridikoa da, Ordenantza honek aipaturiko hiriko zerbitzuak eman ahal izateko titularrari gaitasuna ematen diona.

2. Herriz kanpoko zerbitzuak soilik eman ditzakete Arabako Foru Aldundiak emandako dagokion garraiatzeko baimena duten udal lizentziadun titularrek.

3. Laudio Udalaren lizentziaren jabe izateak, zein herri arteko garraio zerbitzuak egiteko baimenaren jabe izateak baimena emango dio bere titularrari (edo soldatapeko gidariari) soilik eta bakarrik Laudio Udalerri barrutian hasi eta amaiera duten iren ibilbideak egiteko (edo bere Aiarako Koadrilako Taxi Zerbitzuaren Prestazio Bateratuko Esparru barruan).

5. artikulua. LIZENTZIA MOTAK

1. Taxi zerbitzuko udal lizentziak bi eratakoak izan ahalko dira: "*arruntak*" edo "*egokituak*". Batez ere ahalmen urritasunen bat dutenei zerbitzua emateko direnak lizentzia "*egokituak*" izango dira ezintasunen bat duten pertsonentzat; gainerakoak, berriz, "*arruntak*". Edozein kasutan ere, gidariari dagokion sinestamenduan edo egiaztatgiran jasota egon beharko da lizentzia egokituaren izaera.

2. Nolanahi ere, lizentzia egokituak garraio-irisgarritasunaren alorrean indarrean dauden arau teknikoei jarraiki egokitutako ibilgailua eduki beharko dute zerbitzuari atxikia beti.

3. Lizentzia egokituak xede horrekin sortuak eta emanak izan ahalko dira -eta kontuan izanik, beraz, orduan, egokitu izaera hori berezkotzat joko dela halakoetan.

Halaber, eduki ahal izango dute jabetza hori aldi baterako izaeraz, titularrak bere borondatez hala eskatu eta udalak dagokion baimena ematen diolarik, berez arrunta zen lizentzia halako bihurtzeko.

4. Berez izaera egokitua duten lizentziek ezingo diote egokitu izateari utzi alde aurretik aldakuntza horrek taxi egokituen lizentzien kopurua murriztea ez duela ekarriko bermatzen ez bada.

Lizentzia baten aldirako egokitu izaera bereganatuta, gutxienez bost urterako izan beharko du, eta iraupen bereko aldiatarako luzatuko da hori, titularrak egoera arruntera bihurtzeko eskatzen ez duen bitartean. Hala egitea erabakiz gero, indarrean dagoen aldia bukatu aurretik egin beharko du. Nolanahi ere, aldi baterako edozein baimen-aldi bertan behera utzi eta eten ahal izango da, eta izaera arruntera bihurtu, aldi berean lizentzia eskualdatzea edo lizentziari atxikitako ibilgailua aldatzea baimentzen bada.

5. Berez egokitu izaera duen lizentzia baten jabe den pertsona titularrak, udalaren baimena tarteko dela, izaera arrunteko beste lizentzia baten jabearekin jabetasuna trukatzeko eskabidea egin ahal izango du: kasu horretan, lizentzia baten eta bestearen jabeak trukatu egingo dira halakoetan.



II. KAPITULUA

Lizentziak ematea eta horren Erregistroa

6. artikulua. LIZENTZIA KOPURUA- EMATE PROZEDURA.

1. Eman beharreko taxi zerbitzuko benetako lizentzien zenbatekoa zehaztuko du dagokion udal organoak, toki araubideko arauekin bat, prestatu beharreko zerbitzua hobetzeko asmoaz.

Edozein kasutan ere, eman beharreko gehinezko lizentzien zenbatekoa Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailak ezarritako keinako kopuru zenbatekoak mugatuta geratutako da.

2. Taxi zerbitzuko lizentzien kopurua handitu nahiz murrizteko asmoz, Udalak eman beharreko gehinezko zenbatekoaren barruan, bideratzen den espediente orotan honako datu hauek aintzat hartu beharko dira:

- a) Aldakuntzak egin aurreko egoera, zerbitzuaren egoera, kalitateari eta hedadura dagokienez.
- b) Hiriko hirigintza-garapena eta ekonomi eta gizarte jarduera.
- c) Ezintasun motaren bat edo beste duten bizilagunen garraiorako irisgarritasuna errazteko bidea, pertsona horien gizarteratzea eta mugikortasuna erraztuz.

Espediente horietan txostena eskatu egin beharko zaio Arabako Lurralde Historikoko Taxiaren Batzordeari edo organo baliokideari, entzunaldia eskainiz, halaber, pertsona erabiltzaileen elkarerik ordezkagarrienei eta Ordenantza honetan kontuan hartutako taxiaren sektoreko kolektiboetara ere.

3. Eskumena duen udal organoaren ebazpen bitartez emango dira taxi zerbitzuko udal lizentziak, horretarako alde aurretik zabalduko lehiaketa deialdi bitartez eta lehiakortasun ireki eta publizitateko printzipioak zorrozki errespetatuz, non baloratu ahal izango diren, besteak beste, honako aspektu hauek:

- Eskaintza ekonomikoa.
- Euskararen ezagupena.
- Eskaintzailearen proposamenak, emango lukeen zerbitzuaren ezaugarri bereziei dagokienez.
- Gainerako eskaintzaileen aldean zerbitzu hobea ematea lekarketen bestelako merezimenduak.

4. Artikulu honetako 4. paragrafoan adierazitako lehiaketara izangai aurkezteko, hala nola lizentziak eskualdatu ahal izateko kasuetarako, interesatu orok honako betebeharrak eta baldintzak bete behar ditu:

- a) Kasu guztietan, Laudio Udaleko Erroldan izena emanda egotea, hala titulartasun berria bada, nola transmisio eskualdatze kasua bada.
- b) Ordaindu beharreko zergak ordainduta edukitzea eta horiekiko egunean egotea.



- c) Trafikoa eta bide segurtasun arloan eskumena duen organoak emandako gidari baimen nahikoaren jabe izatea.
- d) Ez izatea lanbidean normaltasunez jardutea galarazi edo zail liezaiokeen inongo ahalmen urritasun fisiko edo psikikorik.
- e) Indarrean dagoen araudian ezarritako baldintza, dokumentazio eta betebeharrak baldintza guztiak eskatu egingo dira.

Lizitaziorako izapidetutako espedienteetan txostena eskatuko zaio Arabako Lurralde Historikoko Taxiaren Batzordeari edo Arabako Lurralde Historikoko organo baliokideari, eta entzunaldia eskainiko zaie Ordenantza honetan kontuan hartutako taxiaren sektoreko kolektiboetara ere.

7. artikulua.- LIZENTZIEN ERREGISTROA.

1. Emandako lizentzien erregistroa eramango du udalak, eta bertan idatzizko oharra jasoko eta jarriko dira, lizentzia horiei dagozkien zigorrak dagozkien gorabeherak

2. Kasu guztietan, erregistroan ondoko datu eta dokumentuak adierazi behar dira:

- a) Lizentziaren titularrak eta zenbakia eta, hala badagokio, soldatapeko gidaria, NANaren fotokopia eta telefono zenbakia.
- b) Lizentziari atxikitako ibilgailua, matrikula, marka eta zirkulazioko baimenaren fotokopia.

3. Erregistroetan dauden datuen tratamendua eta lagapena doitu eta egokitu egin beharko zaio administrazio-artxiboetara eta Izaera Pertsonaleko Datuen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari buruzko araudiari .

III. KAPITULUA Lizentziaren ustiapena

8. artikulua.- LIZENTZIA KOPURUA

1. Lizentzia bakoitzak jabe bakarra izango du, momentu bakoitzean izendatutako gidari bakarra eta ibilgailu bakarra edukiko du atxikita.

2. Pertsona berbera ezin daiteke izan, sekula, lizentzia bat baino gehiagoren jabe, Ordenantza honetako 5. artikuluan arabera kalifikazio ezberdinekoak badira ere lizentziok.

9. artikulua. ESKLUSIBITATEA.

1. Lizentziaren titularrak behartutako dago pertsonalki ustiatzeko eta dedikazio oso eta eskusiboko lanaldi araubidean. Batera ezina da ordaindutako beste edozein jarduerarekin . Udalak eska dezake, edozein momentutan, inguru-abarrak eta egitateak kontuan izanik, hori zehaztuko den eran et forman dokumentu bidezko sinestamendua eta egiaztapena egiteko.

Edozein kasutan ere, eta gainerako beste dokumentazio eskagarriaren baten kalterik gabe, eskusibotasuna egiaztatu egin beharko da dagokion autonomoen araubidean alta emanda



egoteari buruzko dokumentuaren aurkezpenarekin edo Udal Arloak zehaztuko duen forman.

Betebehar hau ez bada bete. erakarriko du, aldez aurretiko dagokion espedientearen tramitazio eta izapideak eginda, taxiaren udal lizentzia atzera bota eta baliogabe uztea..

2. Salbuespen moduan, eta dagokion Udal Arloaren iritziz, aski egiaztatutako arrazoiak batera bilduta daudenean (zerbitzuaren prestazioa pertsonalki galarazten duten alarguntza, titularraren baliogabetasuna, lanerako ezintasun iragankorra edo gerora agertutako bestelako gorabeherak), lizentzia ustia daiteke soldatuko gidaria kontratatuz, Laudio Udalak emandako udal gidari-baimenez eta sinistamenduaz edo egiaztagiriaz hornituta.

3. Kasua bada lizentziaren titularra hil dela, gaitzen duen pertsona titular oinordekoak eskatu beharko du lizentzia bere izenean emateko; harik eta pertsona oinordekoa adingabea den bitartean edo beste diru-sarrerarik ez duen bitartean, eskubidea izango du hori ustiatzeko behin-behineko izaeraz, aldez aurretik udalak horretarako baimena emanik, soldatapeko pertsona gidari bat kontratatuz. Indarrik eta eraginik gabe geratuko da baimena inguruabar horiek desagertu direnean udalak edozein unetan eskatzen dion moduan egiaztatu behar izanik hori.

Beste edozein kasutan, oinordekoak berak ustiatu beharko du lizentzia, erabateko dedikazio eskusiboz, edo, bestela, lizentzia eskualdatzeko eskatu, sei hilabeteko epea gainditu aurretik, kausatzailearen heriotza egunetik sei hilabeteko igaro aurretik..

4. Lizentzia adingabeko batek jasotzen badu oinordekotzan, lau urteko epea izango du, adin nagusitasuna betetzen duenetik hasita, lizentziaren ustiapena bere gain hartzeko, erabateko dedikazio eskusiboz, edo, bestela, lizentzia eskualdatzeko eskatzeko.

5. Salbuespenez, Ordenantza honetan aurreikusi gabeko egoera iragankorretan (herentzien tramitazioa,...) Udalak, alegatzen diren inguruabarrak kontuan izanik, lizentzia jakin bat soldatapeko gidaria kontratatuz ustiatzeko baimena eman ahal izango du udalak behin-behineko izaeraz; alegatutako inguruabar horiek dirauten arteko denbora muga jarriko da halakoetan.

6. Titularrak erretiroa hartu ondoren, ezingo du zerbitzua soldatapekoak eman, inola ere.

7. Kasua bada, urte batean hiru hileko epea baino gehiago denboran zehar justifikatu gabeko kausa barik zerbitzua prestatzeari uzten zaiola, aldez aurretik dagokion espedientea tramitatu eta izapidetuta, lizentziaren iraungitzea gertatuko da. Kasu horietan Udalak bere esku du esleipen berri bat egitea edo lizentzia horren amortizazioa egitea, egoki deritzonaren arabera, salbu eta kasu behar bezala motibatu eta arrazoituta eta Udal Administrazioan bere erabaki administratiboan beren beregi eta berariaz aitortuta.

Kontuan hartuko da justifikatutako kausa dela ibilgailu gidariarena, lizentziaren titularra izan ala ez. Edozein kasutan ere, lizentziaren titularrak zerbitzua prestatu beharko du soldatapeko gidari baten bitartez aipatu den ezintasun edo baliogabetasun egunetik hasita 60 egun naturaleko gehienezko epea igarota, beti ere, aldez aurretik betez Ordenantza honek eta udalaren ebazpenak eskatutako baldintzak.

Soldatapeko gidariaren aldi baterako lanerako ezgaitasun kasuan, baimenduko da, salbuespenez eta aldi baterako, ordezteko soldatapeko gidari berri batekin, aldez aurretik Laudio Udalak baimenduta, Ordenantza honetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituela. Soldatapeko gidariaren aldi baterako lanerako ezgaitasuna hasten denetik, gehienez



ere 60 egun naturaleko epearen buruan ordezkapena eginda egon behar da.

Amaiturik lizentzia-titularraren aldi baterako ezgaitasun edo, hala bada kasua, soldatapeko gidariarena, Laudio Udalarari jakinarazi egin beharko zaio hori.

10. artikulua. SOLDATAPEKO GIDARIAK.

1. Laudio Udalak lizentzien titularrei eskatzen dizkien lanbide gaitasun baldintza berberak bete beharko dituzte soldatako gidariak eta Ordenantza honek eta Automobilean Hiriko eta Hiriz Kanpoko Bidaiarien Garraio Publikoaren ekainaren 29ko 2/2000 Legeak aipatzen dituen ezintasun edo debekatzeko arrazoietan ez dira sartuta egon behar.

Laudio udalerriaren barrutian egoitza izatea edo erroldarekiko baldintza ez da eskagarria izango.

2. Lizentzia jakin bat ustiatzeko soldatapeko gidari baimena eskuratzeko, titularrak lan kontratua aurkeztu beharko du, eta bertan zehaztu beharko du bertan zehaztu beharko du soldata finko bermatua, gidariak irabazi ekonomikoetan izan lezakeen partaidetzaren kalte bari, eta proposatzen duen gidaria Gizarte Segurantzako nahitaezko erregimenetan behar bezala izena emanda dagoela erakusten duen ziurtagiria.

3.- Lizentzia bati ezin izango zaio soldatapeko gidari bat baino gehiago atxiki, salbuetsita aurreikusitako legezko edo araubidezko kasuetan, udal baimenik dutenean.

4. Soldatapeko gidariak ez dute inolako abantaila edo lehentasunik izango taxi lizentziak emateko prozeduretan.

5. Soldatapeko gidari baten kontratazio kasu guztietan, kontratatutakoak bere jarduna gauzatu beharko du dedikazio oso eta eskusiboko erregimenean.

10 bis artikulua. PERTSONA GIDARIAREN EGIAZTAGIRIA.

1. Taxi zerbitzuaren prestazioa emateko, pertsona gidariak (lizentziaren titularrak edo Ordenantza honetan baimendutako kasuetan soldatapeko gidariak) eduki beharko dute pertsona gidariaren sinistamendua eta egiaztagiria, zein, gainera, identifikazio txartela ere izango den.

Taxi gidari baimenaren sinistamendua edo egiaztagiria udalaren jabetzakoa izango da, baina lizentzia jabearen edo soldatapekoen esku gordailuan geratuko da; lizentziaren titularitatea edo soldatapeko gidari legez aritzeko baimena galtzen badute, Udalarari bueltatu egin behar diote.

Lizentzia baten titularrak edo jabeak ez diren taxi gidarien kasuan, dagokion sinistamendua edo egiaztagiria eskatu behar zaio Udalarari, baldin eta Udalak lizentzi jakin bati atxikitako soldatapeko pertsona gidari legez baimendu badu. Edozein kasutan ere, egiaztagiri hori bueltatu behar da atxikipena amaitzen denean.

2. Taxiaren pertsona gidariaren egiaztagiria ibilgailuan bistan eta ikusteko lekuan eraman behar da.

Egiaztagiri horretan azalduko da: baimenduta dagoen pertsona gidariaren argazkia eta identifikazioa (titularra nahiz soldatapekoa izan), egiaztagiriak duen balio aldia, atxikita duen



ibilgailua, hala nola lizentzia zenbakia eta lizentzia horren titularra. Gainera, inguruabar espezifikokoak ere sartuko dira, hala nola ibilgailu egokitua den eta zenbat plaza duen edo bere balioak behin behineko izaera duenetz.

3. Taxi gidari sinestamendu edo egiaztagiria iraungita geratuko da, egiaztatzen baldin bada, aldeztu aurretik dagokion espedientearen tramitazioa eta izapideak egin ostean, administrazio ebazpen bitartez, taxi zerbitzuaren prestaziorik ez dela eskaini urte baten buruan, ez eta azken hiru hilabeteetan ere, salbu eta Udal Administrazioak administrazio ebazpen bitartez behar den legez arazoitutako eta berariaz aitortutako kasuetan izan ezik, Ordenantza honetan erabakitakoarekin bat administrazio arau-hauste kalifikatzeko kalte barik.

4. Taxi gidari baimen egiaztagiria eskuratzeko nahiz berritzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Pertsona fisikoa izatea.
- b) Beste lizentzia baten jabe ez izatea.
- c) Laudio udalerrian erroldatuta egotea.
- d) Ordaindu beharreko zergak ordainduta edukitzea.
- e) Gaitasun probak gainditzea.
- f) Gaixotasun infekzioso eta kutsakorrik edo lanbidean jardutea eragozten edo zailtzen dion traba fisiko edo psikikorik ez duela egiaztatzea, osasun Zerbitzu Publiko baten ziurtagiri mediku ofizial baten bitartez.
- g) BTP motako gidatzeko baimena edukitzea, Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emana.

5. Pertsona gidariaren sinestamenduak edo egiaztagiriak bost urteko balio izango du, epe hori bukatu aurretik berritu behar izanik; horretarako gaitasun frogak gainditzearen obligaziotik salbuetsita geratuko dira, salbu eta udalaren arazoitutako ebazpena tarteko dela, artikulua honetako 1. atalaren amaieran eta 3. atalaren amaieran ebatzitakoaren kalte barik.

Egiaztagiria ez berritzea edo ez bisatzeak erakarriko du egiaztagiri horrek gaitzen dituen titulu guztiak indarge eta baliogabe uztea. Edozein kasutan ere, administrazio bidezko ebazpen irmoz ezarritako diru-zehapenak ordaintzea nahitaezko baldintza izango da aipatu den lizentzia berritu ahal izateko.

6. Eskaera egiten denetik gehieneko bi hilabete epearen barruan pertsona gidariaren egiaztagiria lortzeko gaitasun frogak ipini beharko ditu Udalak, aldeztu aurretik dagokion udal tasak ordainduta.

Egiaztagiria lortzeko frogak izango dira taxi zerbitzuarekin zerikusia duen araudia ezagutzen dela, udalerria, zentro ofizialak, e.a. ezagutzen direla erakustea. Frogak gaindu egin behar dira, gutxienez ere, guztietarik ehuneko laurogeita hamarrean.

IV. KAPITULUA

Lizentzien transmisioa



11. artikulua. LIZENTZIAK ESKUALDATU AHAL IZATEA..

1. Lizentziak eta baimenak ezin dira eskualdatu, ondorengo kasuetan izan ezik:

- a) Titularraren heriotzagatik, ezkontide alargunaren alde, behar den legez inskribatutako izatezko bikotekidearen alde edo legezko oinordekoen alde.
- b) Erretiroa hartzean.
- c) Lizentzia jarduera bakar eta eskusibo gisa ustiatu ezin badute a) atalean adierazitako ezkontide alargunak, izatezko bikotekideak edo oinordekoek.
- d) Gaixotasuna, istripua edo munta handiko kalifika daitekeen beste arrazoiren bat dela tarteko, titularra lanbidean aritzeko iraunkortasunez betiko ezindua geratu bada. Horretarako, egoki deritzon beste edozein dokumentazioren kalte barik, titularrak aurkeztu behar du inguruabar eta egoera hori egiaztatuko duen Osasun Publikoko Zerbitzuak emandako txostena, Udalak berak bere aldetik eskatutako azterketa osagarrien kalte barik.
- e) Lizentziaren titularitateak hamar urtetik gorako antzinatasuna badu. Lizentziaren jabeak eskualdatu ahal izango du, toki erakundeak baimena eman ondoren, baina ezingo du berriro lizentziarik eskuratu, udalerrri honen barrutian, hurrengo hamar urteetan, araudi honetan finkatutako moduetako batean ere.

2. Transmisio eskualdatzea Laudio Udalak baimendu behar du, alde z aurretik horretarako aurkeztutako eskaera idatzia tarteko dela, beti eta eskuratzailerak berorren titularra izateko Ordenantza honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituenean.

Eskaera aurkeztu zenetik hiru hileko epea igarota beren beregiko eta berariazko ebazpenaren jakinarazpenik jaso barik, administrazioaren isiltasunagatik ez dela onartua izan ondorioztatu behar da, azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideko 20/1992 Legeko 43. artikuluan erabaki eta ezarritakoa betez, Udal Administrazioak eman behar duen ebazpenaren kalte barik.

Baimena lortu ostean, horren jakinarazpena jaso izanaren adierazpenetik hilabete bat igaro baino lehen, orain arteko pertsona titularrak idatzi bat aurkeztu behar du, titular berria izan nahi duenarekin batera, non alde bietan komunikatuko duten transmisio eta eskualdatzearen benetakoaz, aldi berean, komunikatuz, lehengo lizentzia zuen pertsona titularrak lizentziari egiten dion ukoa eta eskatzen duela lizentzia ematea pertsona titular berriari, eta horren datu pertsonalak eta jakinarazpenetarako helbidea eman. Azken idazki horrekin batera, taxi lizentziaren jabe izateko bete beharreko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko ditu lizentzia berria eskuratu nahi duenak. Aipatu den idazkia ez bada aurkezten seinalatutako epearen barruan, transmisio edo eskualdatzearen baimenak iraungiko du.

Hala eskualdatze baimena lortzeko eskaera, nola titular berriari emateko zuzenduta dagoen idatzia, prozesuen ekonomiagatik tramite bakarrean eska daiteke, edozein kasutan ere, aplikaziokoa izanik atal honetako 2. paragrafoan ezarritako epea.

3. Lizentziak eta baimenak ezin izango dira transmititu Udala eta Foru Aldundia beroriek iraungitzeko edo aldi baterako suspentsioan uzteko prozedura tramitatzen ari direnean.



4. Transmisioko edo eskualdatutako lizentziari atxikitako ibilgailua lehendik zegoen bera izan ahal da, baldin eta lizentzia erosten duenak harekin batera ibilgailua bera ere erosi badu, edo beste bat izan daiteke, jabe berriak ipinia, baldin eta ibilgailuak ordezteko baldintzak betetzen baditu. Berezko izaera duen lizentzia egokitua denean, transmisioak ere jarraitu behar dio berezko izaera berari.

5. Nolanahi ere, sektoreko legedian sailkatutako arau-hausteak direla eta administrazio bidean irmo diren ebazpenen bitartez jarritako diruzko zigorrak, isunak, -dena delako lizentziaren jabeari jarriak- ordaintzea ezinbesteko baldintza izango da udalak lizentziak eskualdatzeko baimena emateko.

6. Ezingo dira lizentziak eskualdatu baldin eta alde zuretik epaile edo administrazio organoren batek horiek bahitzeari ekin diola jakiten badu udalak ofizialki.

V. KAPITULUA

Lizentzien iraungipena

12. artikulua. LIZENTZIAK IRAUNGITZEA ETA BALIOGABETZEA

1. Lizentzia iraungita eta ezeztatua geratuko da titularrak uko eginez gero nahiz baliogabetu edo iraungiz gero, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo Kotxez Garraiatzeko Zerbitzu Publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legeak eta garatzen duen araudian ezarritako araubidearekin bat.

2. Aipatu den indarrean dagoen araudian ezarritakoaz gainera, iraungi edo ezeztatuta geratuko da, honako kasuetan:

- a) Lizentziako funtsezko baldintzak betetzen ez direnean.
- b) Behin eta berriro arau-hauste oso larriak egiteagatik edo ezarritako zehapena edo zigorra hausteagatik. Ondorio horiek izateko, ulertuko da behin eta berriro egin dela, arau-haustea burutu aurretiko hamabi hilabeteen barruan, arau-haustea erantzulea zehapenaren edo zigorraren objektu izan denean oso larritzat sailkatu eta tipifikatutako arau-hausteagatik ebazpen irmo eta finakoaren bitartez.
- c) Urte betea igarotzeagatik gaitzen duten tituluaren bisatua egin barik eramanda. Epe hori zenbatzen hasiko da eskatzeko epea hasten den egunetik hasita, salbu eta eskaerarik ez aurkeztea ezin egoz dakiokenean lizentzia horren titularrari.
- d) Egokiera arazoiek hala eskatzen dutenean. Kasu horretan, lizentziaren titularrak Laudio Udalak finkatzen duen kalte-ordaina jasoko du; horretarako funtsa eta oinarri legez merkatu azterketak aintzat hartuko dira eta sektoreko elkarterik ordezkagarrienei parte hartzeko aukera emango zaie.

III. TITULUA

IBILGAILUAK

I. KAPITULUA

Arau orokorrak.



13. artikulua. LIZENTZIARI ATXIKITAKO IBILGAILUA.

1. Taxi zerbitzuko lizentziaren titularrak ibilgailu bakarra eduki beharko du lizentziari atxikia, eta udalak eman beharko du ibilgailu horixe zerbitzuan erabiltzeko baimena.

Ibilgailu horiek Ordenantza honetan adierazten diren zerbitzuak emateko xederatu, erabili eta baliatu beharko dira, bertan jasotzen diren zehaztapenekin, eta debekatuta egongo da horiek bestelako xede publiko edo profesioaletarako erabiltzea, salbu eta udalak berariaz baimen funtsatua ematen badu.

2. Udal lizentzian zehatzuko da zerbitzua emateko gehienezko edukiera edo "*zerbitzu edukiera*" –zenbat pertsona bidaiari, gidaria barne- eta edukiera hori ez da nahitaez bat etorriko ibilgailuaren beraren edukierarekin, zein handiagoa izan bailiteke. Ibilgailua benetan erosi aurretikoa izango zehaztasun hori, aldatze edo ordezte kasuan.

Izaera orokorrez, eta beste berariazko zehaztasunik ezean, taxi lizentzien zerbitzu edukiera bost plazakoa izango da. Hala ere, lizentzia bakoitzaren behar indibiduala justifikatu ondoren, salbuespen gisa, bederatzira arte zabaldu ahal izango da, Laudio Udalaren berariazko ebazpena dela medio.

3. Udal lizentzia berria eskatzen den momentuan, lizentziari ezin izango zaio atxiki lehenengo matrikulaziotik bi urtetik gorako antzinatasuna duen ibilgailurik, matrikulazioa egin den herrialdea edozein izanda ere. Denbora muga hori ez aplikaziokoa izango lizentzien transmisio kasuetan.

4. Atxikiko diren ibilgailuek udal ikuskapena gainditu beharko dute -horiek lizentziei atxiki aurretik-, zerbitzura eta horri dagokion araudira ondo egokitzen diren eta egiaztatzeko.

Egokitzapen ikuskapena burutu ahal izango da atxiki aurretik edo udal lizentzia indarrean dagoen edozein momentutan. Horretarako, titularrari errekeritu egingo zaio, udal instalazioetan edo horretarako adieraziko zaion lekuan dagokion ikuskapena egitera pasatzeko epea eskainiz.

II. KAPITULUA

Atxikitako ibilgailua ordezte eta eskualdatzea

14. artikulua. ORDEZTEA. ORDEZKO IBILGAILUA.

1. Lizentziaren titularrak ordeztu ahal izango du zerbitzu horretara atxikitako ibilgailua. Horretarako, interesdunak, idatziz, nahitaezko udal baimena eskatuko du eta berori emango da zerbitzuaren segurtasun eta zainketarako baldintza teknikoak egokiak diren, hala nola zerbitzua emateko behar den dokumentazioa zuzena den egiaztatu ondoren.

2. Istripua gertatu edo ibilgailua matxuratuz gero, baita atxikia duen ibilgailuarekin zerbitzua ematea galarazten duten bestelako salbuespenezko egoeretan ere, titularrak jarraitu ahal izango zerbitzua ematen, aldi baterako egoera iragankor horrek dirauen bitartean, lizentziari atxikitakoaren antzeko ezaugarriak dituen eta indarrean dagoen araudian eskatutako baldintzak tekniko guztiak betetzen dituen ibilgailu batekin.

Horretarako, Udalean aurkeztu behar du berariazko baimena ordezeko ibilgailu horren



erabilera arrazoitzen duten aparteko arrazoen justifikazioarekin eta ibilgailuaren zirkulazio baimenaren kopiarekin batera.

Lizentziari hasiera batean atxikitakoa ordeztzen duen ibilgailua hari atxikitakotzat joko da aldi batez. Aldi baterako izaera duen egoera hau luzatzen bada hilabetea baino denbora gehiagoz, derrigorrekoa izango da Udalari eskaera berria egitea eta Udalak berariazko ebazpena ematea.

Behin-behinean ibilgailua ordezttera behartu zuten inguruabarrak desagertzen direlarik, zerbitzua lizentziari hasiera batean atxikitako ibilgailuarekin ematera itzuliko dela jakinarazi beharko dio lizentziaren titularrak Udalari, hamar egun naturaleko epean, eta, besterik gabe, ordezko ibilgailuak lizentzia horri atxikita egoteari utziko dio.

15. artikulua. IBILGAILUA ESKUALDATZEA.

Udal lizentziari atxikitako ibilgailua “*inter vivos*”, bizirik dauden pertsonen arteko transmisioa iraungitzea edo ezabatzea ekarriko luke, salbu eta, aldi berean, lizentziaren titularrak zerbitzu honetara ibilgailu berri bat atxiki duen, aurretik Administrazioak aztertu eta baimendu ondoren.

III. KAPITULUA Ibilgailuen bereizleak

16. Artikulua. BEREIZLEAK.

1. Edozein bereizgarri, plaka, e.a., hala nola matrikula, Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruz indarreko araudian xedatutakora doitu behar zaio.

Kasu guztietan, eta bestelako bereizlerik izateko kalte barik, autotariko zerbitzuari atxikitako ibilgailuek atzealdean eraman behar dute, indarreko arategiak zehaztutako lekuan eta ezaugarriekin bat, “Zerbitzu Publikoa” plaka adierazlea.

IV. KAPITULUA Ibilgailuen ezaugarriak

17. artikulua. IBILGAILUEN EZAUGARRI FISIKOAK.

1. Udalak baimena eman behar du, erabiltzaileari nahiz zerbitzua emateko moduari eragiten dion edozein ekipamendu berezi ipini aurretik.

2. Taxi zerbitzuko lizentziei atxikitako ibilgailuek itxura, segurtasun, funtzionamendu eta garbitasun egoera onean egon beharko dira, kanpotik eta barrutik.

Edozein kasutan ere, indarrean dagoen legedian jasotzen diren ezaugarri guztiak bete beharko dituzte, eta, bereziki, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo Kotxez Garraiatzeko Zerbitzu Publikoaren Legearen Araudian adierazten direnak.

3. Zehazki, ibilgailuek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Ibilgailuaren barruko eta jesarlekuen gutxieneko neurriak eta ezaugarriak behar



adinakoak izan behar dira zerbitzuko segurtasuna eta erosotasuna erabiltzaileei eskaini ahal izateko.

- b) Karrozeria itxia, ate erabilerrazak, gutxienez lau, eta maleta-lekuaren edukiera 330 litrotik gorakoa izan behar dituzte.
- c) Aurreko eta atzeko luneten kristalak eta leihatilak gardenak eta zatiezinak, berauek guztiz edo zati baten estaltzea espresuki debekatuz. Luneta tindatu edo sistema laminatuak ipin daitezke ibilgailuetan, beti eta aurre aldean eta albo aldeetan eraginik ez badu.
- d) Ibilgailuen tapizatua egoera onean egon behar da, barru aldeari garbitasun gutxi eta txarto zainduta dagoen itxura ematen duten narriadura, adabaki edo bestelako hondamen barik eta saiaturik da tapizatu hori kolore berekoa izatea, bere kalitatea eta marrazkiak desegokiak izatea galaraziz.
- e) Eduki behar dituzte: barruko argiak, su itzalgailua eta aire egokitua edo aire-girogailua.
- f) Behar den mekanismoa eduki beharko dute, erabiltzaileak leihatilak bere nahierara ireki nahiz ixterik izan dezan.
- g) Zorua babes daiteke gomazko estalkiekin edo erraz garbitzeko moduko beste materialen batekin, ondo itsatsita eta apurturik gabe. Debeakuta dago alfonbrak eta oinpekoak erabiltzea
- h) Gidariaren lokalizazioa eta zerbitzuaren prestazioa ahalbidetu ahal izateko kasu guztietan telefono mugikorraren zenbaki bat edukiko du.

4. Berez nahiz aldi batez "*egokitu*" izaera duten lizentziek ezintasunen bat duten pertsonentzat egokitutako ibilgailuak eduki beharko dituzte horiei atxikiak, garraio irisgarritasunaren alorrean indarrean dagoen araudiari jarraiki.

Ibilgailua egokitzat jotzeko aintzat hartutako ezaugarriak ezingo dira aldatu zerbitzuan dagoen bitartean, alde aurretik Laudio Udalaren berariazko baimena eskuratu gabe.

Berez nahiz aldi batez *egokitu* izaera duten lizentzietan atxikitako ibilgailu guztiek, zerbitzuan direlarik, terminal mugikor eraginkor bana eduki beharko dute, zeinen zenbakia, zerbitzuari atxikiak, Udalari jakinarazi beharko zaion. Zenbaki hori ezagutzera eman ahal izango da taxi egokituen zerbitzuaren erabilerarako, egokitzat jotzen den moduan. Lizentziari atxikitako telefono zenbakia aldatuz gero, udalari jakinarazi beharko zaio.

5. Auto-taxi zerbitzuari atxikitako automobilek Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko araudian, Lege lerrunekoak izan nahiz erregelamendukoak eta gainontzeko zirkulazioko araudian, jasotako eskakizunak bete behar dituzte, haizetako-garbigailua, atzerako ispilua, kanpoko argiak, e.a.

V. KAPITULUA

Udal ikuskapenak eta azterketak



18. artikulua. AURRETIKO, OHIKO ETA APARTEKO IKUSKAPENAK

1. Ez da zerbitzuan ipiniko udal baimenik ez duen ibilgailurik. Horretarako alde zurretik Eusko Jaurlaritzako dagokion Sailak IAT –Ibilgailuen Azterketa Teknikoa- eta Laudioko Udalak aztertu beharko ditu bere segurtasun, zaintze egoera eta dokumentazio alderdietako baldintzak.

2. Zerbitzura atxikitako ibilgailuak indarrean dagoen araudiak ezarritako ohiko ikuskapenak egin behar dituzte eta, beste horrenbeste, aparteko izaeraz, Laudio Udalak dei egiten dionean horretarako.

Egin zaizkien ikuskapenak gainditu ez dituzten ibilgailuek ezin izango dute zerbitzurik eman, harik eta antzemandako akatsak zuzendu eta hala udal ikuskaritza zerbitzuek berronets dezaten.

19. artikulua. UDALAREN IKUSKAPEN FUNTZIOA.

1. Ikuskatze-eginkizuna ofizioz edo entitate, erakunde edo interesdun pertsona fisiko batek egindako salaketaren ondorioz egikari daiteke.

2. Ikuskatze-eginkizunak egiten dituzten udal langileek agintari publikoaren kontsiderazioa izango dute, bere eskumenen barruan diharduten bitartean eta independentzia osoa izango dute euren jardun horretan. Laudio Udalak zehaztuko du, bere langileen antolamenduarekiko doituta eta udal langileen artean, zein udal funtzionarioik egikarituko dituen ikuskapen funtzio horiek. Edozein kasutan ere, udaltzain agente guztiak kontsideratuko dira zerbitzuaren ikuskatzaileak direla, lizentziaren titularrari edo / eta soldatapeko langileari egiaztapena zertan erakutsi beharrik izan barik, salbuetsita baitaude.

3. Dena den, eta euren funtzioak eraginkortasunez betetzeko, udal ikuskapenak laguntza jaso dezake udaltzaingotik, beste segurtasun indarretik, hala nola beste administrazio batzuetako ikuskapen zerbitzuetatik.

4. Auto-taxi lizentzien titularrak eta, hala badagokie, soldatakoak derrigortuta daude udal langileei ibilgailuetan sarbidea eman eta dokumentazioa hartu ahal izatea errazteko.

IV. TITULUA ZERBITZUAREN PRESTAZIOA

I. KAPITULUA Zerbitzuaren prestaziorako behar diren dokumentuak

20. artikulua. IBILGAILUEN DOKUMENTAZIOA.

1. Ordenantza hau arautzen duen zerbitzuaren prestaziorako, auto-taxi ibilgailuek ondoren aipatzen diren dokumentuak aldean izan behar dituzte:

1.1. Ibilgailuari dagozkionak:

- a) Zerbitzu Publikoaren xafla, homologazio zenbakiaz.
- b) Ibilgailuaren zirkulazioko baimena.



- c) Erantzukizuneko aseguru-poliza, 50.000.000€ arteko estalduraz.
- d) Taximetro aparailuaren egiaztapen-txartela, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak emandakoa.
- e) Arabako Foru Aldundiak emandako garraiatzeko lizentzia eta baimenari dagokion ebazpena, herriz kanpoko zerbitzuak egiteko gaitasuna ematen duena.
- f) Modulua ipinita edukitzea.

1.2. Gidariari dagozkionak:

- a) Pertsona gidariaren sinistamendua edo egiaztagiria, lizentzia titularra zein soldataduna.
- b) Gidabaimena, Gidarien Arautegi Orokorrek eskatzen duen motakoa, Probintziako Trafikoko Buruzagitzak emandakoa.

1.3. Zerbitzuari dagozkionak:

- a) Erreklamazio-orrien eta faktura taloien liburuak, Udalak ezarritako diseinuaren arabera, eta, kasu guztietan, lizentziaren zenbakia inprimaturik eraman beharko dutenak.
- b) Taxiaren Euskal Legearen, bere erregelamenduzko garapenaren eta Ordenantza honen aleak.
- c) Tarifa ofizialen koadroa hizkuntza bitan (euskara eta gaztelania). Udalak eskurarazitako koadro hori erabiltzaileen eskueran ipinita egon behar da, bada ezpada eskatuko balute.
- d) Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legea, bere Araudia edo Erregelamendua, eta Zirkulazio arloan indarrean dauden gainontzeko xedapenak.
- e) Osasun-etxe, komisaldegi, suhiltzaile eta gainontzeko larrialdiko zerbitzuen, hala nola zentro ofizialen kokalekuen helbideak.
- f) Laudio Udalerriko plana eta kaletegia.
- g) Elementu osagarrien fitxa teknikoa eta homologazioa.

II. KAPITULUA

Geralekuak

21. artikulua. GERALEKUAK.

1. Udaleko dagokion arloak ipini, aldatu zein kenduko ditu taxi zerbitzuko ibilgailuen geralekuak, sektoreko elkarte ordezkariak eta udal lizentzien titularrak entzun ondoren.

2. Geralekuek etengabeko zerbitzua prestatu behar dute baliabide telematikoz.

3. Lizentzietako titular guztiak behartuta daude geltokietara joatera egunero. Salbuetsita daude atsedeen-egunak, oporraldiak, edo horretarako bidezko arrazoirik balego, eskatzen den eran egiaztatzea beharrekoa.



Horretarako, Alkatetza-Lehendakariak ebatziko du Dekretu bitartez zerbitzu prestazioaren antolamendua, adieraziz geralekuan derrigor bertan egon beharreko txanda eta gau-ordutegiko guardiako titularrak zeintzuk diren eta eskatutako zerbitzua prestatu behar dutenak.

Alkatetzak ebatziko du Dekretu horretan bertan adieraziko dira neurri egokiak zerbitzuaren prestazioa etengabe eguneko 24 orduetan bermatzeko, eragindako titularrei aldeztatik aurretik entzunaldia eskainiz eta obligazio hau betetzen denetz ikuskatu eta egiaztatzeko zein neurri hartuko den seinalatuz.

22. artikulua. ZERBITZUA ESKATZEA,

1. Zerbitzuan dagoen taxiaren gidari oro eta libre egonik behartuta dago pertsona erabiltzaile batek eskatzen dion edozein garraio zerbitzuren eskaerari kasu egiteko, inongo aitzakia barik, hurrengo paragrafoan adierazten diren salbuespenak salbu.

2. Zerbitzu eskariei arreta eta kasu egin behar diren obligazioko salbuespenak hauek dira:

- a) Zerbitzua eskatzea helburu ez-zilegiatarako.
- b) Zerbitzua eskatzen dutenak ordena publikoko indarrek jazarrita daudenean.
- c) Ibilgailuko plazak baino pertsona kopuru handiagoa garraiatzeko zerbitzua eskatzen denean.
- d) Zerbitzua eskatu duena edo laguntzen diotenak ageri-agerian mozkortuta edo estupefazientez toxikatuta daudenean, salbu eta euren bizitza edo osotasun fisikorako arrisku larri edo hurreko kasuetan.
- e) Zerbitzua eskatzen duenak edo harekin doazenek, edo aldean daramatzaten gauzek, dituzten ezaugarriengatik, ibilgailuaren barrua zikindu edo honda lezaketenean.
- f) Zerbitzua egoera txarrean dauden bide ibilgaitzetan zehar egin behar denean, baldin eta horrek arrisku larria sor edo ekar badezake gidariaren, bidaiarien edo ibilgailuaren segurtasunerako.
- g) Eskatzaileak berari prestatutako beste zerbitzu batzuk ordaindu gabe zorrean dituztenean.

Kasu horietan, hala ibilgailuaren gidariak nola erabiltzaileak Udaltzaingoa bertaratzeko eska dezakete zerbitzu ematearen ukapenaren justifikazioa egiaztatzearen ondorioetarako.

3. Taxi arruntaren zerbitzua eskatzen duen ezintasunen bat duen erabiltzailearen kasuan, gidariak uko egin ahal dio zerbitzu emate edo prestazio horri aipatu den ezintasuna alegatuz.

Zerbitzuan dauden taxiaren gidariak lagundu egin beharko diete ibilgailuan sartzen eta bertatik ateratzen mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen, baita joan-etorrietarako haurrak eramateko kotxeak erabili beharra daukatenei ere. Halaber, kargatu egin behar dizkiete ekipajeak eta mugitzeko behar dituzten tresnak, hala nola gurrpil aulkiak eta haur kotxeak, baita auto barruan ondo esertzen eta lotzeko elementuak -finkagailuak nahiz segurtasun uhalajartzen ere.



Beharrian bereziak dituzten erabiltzaileen kasuan (haurrentzako ainguratze-tresnak, e.a.), gidaria saiatuko da tresna hori eskaintzen, aldez aurretiko denbora nahikoaz horren abisua ematen bazaio. Hori ezin denean egin, erabiltzaileari jakinarazi behar dio, zerbitzuaren prestazioari uko egin ahal izanik.

Erabiltzailea ikusmen arazo larria duen norbait bada, taxi gidariak laguntza eman beharko dio pertsona horri ibilgailuan sartzeko nahiz bertatik ateratzeko, eta jakinarazi beharko dio helmugan zein leku zehatzetan geratu den, eta bere azken helmugara oinez joateko norantz jo behar duen azaldu, baita haraino duen ibilbidearen berri eman ere.

4. Zerbitzua emateari buruzko ukapena jakinarazi behar zaio Laudioko Herriko Etxean dagoen Udaltzaingoari, espezifikatuz inguruabar horri buruzko lekua, eguna eta ordua, eta hala bada kasua, Udaltzaingoa bertaratu den justifikazioaren arrazoia egiaztatzearen ondorioetarako.

Nolanahi ere, erabiltzaileak eska dezake ibilgailuaren Erreklamazio-orrien Liburuan zerbitzua prestatzeari ukapen hori jasota gera dadin.

23. artikulua. ZERBITZUAREN IBILBIDEA.

Taxi zerbitzuaren erabiltzaileak beraren ustez egokiena den ibilbidea aukeratu ahal izango du, zerbitzua jasotzeko orduan. Kasua bada, ez dela ibilbiderik aukeratu, zehazki ziur aski motzena gertatuko den bidetik eraman beharko du gidariak, egin beharreko distantzia eta beraren ustez denbora luzatzea ekar lezaketen gorabeherak oro aintzat harturik.

24. artikulua.- ERREGAIA KARGATZEA.

Zerbitzua ematen den bitartean ezin izango da erregairik kargatu, bidaiariak espresuki baimendu ezik.

25. artikulua. GAUZAK EDO ANIMALIAK GARRAIATZEA.

1. Ibilgailuak xederatu eta erabili beharko dira Ordenantza honek adierazten dituen zerbitzuak emateko soilik eta debekatuta dago erabiltzea norberetzat edo bidaiariak garraiatzeko zerbitzuak ez diren bestelako helburuetarako.

2. Auto-taxiko lizentziak dituzten gidariak bidaiariak daramatzaten ekipajea eta paketeak onartuko dituzte, maleta-lekuan sartzen badira, ibilgailuan kalterik sortarazi ezin badute edo, edukiagatik, indarrean dauden legezko edo arauzko xedapenik urratzen ez badute.

3. Erabiltzaileak ikusmen urritasuna badu, itsu-txakurra eraman ahal izango du berekin, ibilgailuaren barruan.

4. Salbuespen gisa, bidaiaririk gabeko enkarguak egin ahal izango dituzte taxi gidariak. Kontratatzaile bakarra izan ahalko dute enkargu horiek aldiko, eta abiapuntu eta helmuga bakar bana; enkargua egiteaz batera, gainera, ezingo dituzte bidaiariak garraiatu.

Halakoetan, zerbitzua eskatu duenaren izen-deiturak eta telefonoa eskura izan beharko ditu taxilariak, zerbitzu ikuskatzailearen batek galdatuz gero emateko.

Halako enkarguak egiten direnean, normalean pertsonen ematen zaien zerbitzu



arruntaren tarifa berberak aplikatuko dira.

26. artikulua. GALERAK ETA AURKITZEAK.

Gidariak euren ibilgailuaren barru aldean garraiatu diren pertsonen objekturik aurkituko balute eta ezin izango balute eurek bueltatu, objektu horiek Laudio herriko Udaltzaingoa gordailuan utzi beharko ditu, aurkitu ondorengo 5 egun naturalen barruan.

27. artikulua. ISTRIPUAK ETA MATXURAK.

1. Istripu edo matxurarik gertatuz gero, hala nola ibilgailuaren gidaria agintaritzaren agenteek erretenu dutenean ohartarazi, kargu hartu edo salaketa jartzeko, eta fakturazioa taximetroaren aparailuaren bidez zehazten ari bada, tresna hori hutsartean ipiniko da. Zerbitzua burutzerik ez balego, bai materialki ezinezkoa delako, bai erabiltzaileak hala nahi duelako, honek taximetroak markatzen duen zenbatekoa ordainduko du, hartu beharreko gutxienekoaren zenbatekoa deskontatuz.

2. Erabiltzaileak hala eskatzen badu, gidariak bere eskura jarri ahal izango du beste auto-taxi berri bat. Kasu horretan, tarifa berria kontatzen hasiko da erabiltzailea ibilgailu berrira sartzan den unetik.

28. Artikulua. ORDAINKETA ETA ITXARON-DENBORA.

1. Zerbitzua berau amaitutakoan ordainduko da.

2. Bidaiariak ibilgailua aldi batez utziko balu, itzultzea itxaron behar duen gidariak, berme bezala eta erreziboa emanaz, egindako ibilbideari dagokion hainbatekoa eska diezaioke, itxaroteagatiko ordu erdi gehiagoz, hirigunean, eta, ordubete gehiagoz, kanpoaldeetan. Aipatu den denbora hori igaro denean, zerbitzuz kanpo legez kontsidera daitezke.

3. Bidaiariak eskatuko balio itxaroteko gidariari aparkatzea mugatuta dagoen lekuetan, honek egindako zerbitzuaren zenbatekoa eska diezaioke, zerbitzua jarraitu beharrik gabe, salbu eta itxaron-denbora baimendutakoa baino txikiagoa bada.

V. TITULUA TARIFAK ETA KONTROL-TRESNAK

29. artikulua. TARIFA ERREGIMENA EDO ARAUBIDEA.

1. Ordenantza honek aipatzen dituen hiriko zerbitzuen prestazioa indarrean dagoen tarifa-araubidearen menpe dago, eta taxilari eta erabiltzaileentzako loteslea eta derrigorrezkoa da, ezin izango delarik inolako gehigarrik ametitu. Dena den, erabiltzaileari erraztu egingo zaio ordaintze elektronikoa erabiltzea, inguruabar horrengatik ezin izango zaiolako inolako gehigarrik kobratu.

2. Debekatuta dago espresuki onartuta ez dagoen edozein gehigarri kobratzea. Ezin zaizkio erabiltzaileari sekula kobratu autopista, tunelak, aireportuetako sarrera / irteeren bidesariak.



3. Itsu-txakurrak edo bestelako ezintasunen bat dutenentzako laguntzako beste tresna batzuk garraiatzeak ez sorraraziko inolako gehigarrik ordaindu beharrik izango.

4. Udalak berrikusiko ditu urtero ditu hiriko tarifak eta Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Saileko Euskadiko Prezioen Batzordera bidaliko dira.

Horretarako, aldez aurretik lanbideko elkarteei entzunaldia eskaini ostean, Udalak proposamena prestatuko du eta Prezioen Batzordean aurkeztuko du. Aurrekoan azalduaz gain, hala ere, lanbideko elkarteek ekimena euren esku har dezakete arrazoitutako proposamen bat aurkeztuta, eta hala bada kasua, beti eta Udalak onartu egin badu, Prezioen Batzorde horretara helaraziko da, jatorrizko proposamena jaso denetik hasita hogeita hamar lan egunen epean.

5. Udalak tarifa ofizialen koadroaren aleak jarriko ditu lizentzia titularren eskura. Koadro horiek lizentziari atxikitako ibilgailuan eduki behar dira eta zerbitzu-erabiltzaileek eska ditzakete kontsultatu ahal izateko.

6. Zerbitzuaren helmugara heltzean eta kobratzeko momentuan, erabiltzaileak eskatzen badio, gidariak errezibo bat eman beharko dio. Errezibo horretan azaldu behar dira: lizentzia zenbakia, zerbitzu-eguna eta ordua, zenbatekoa, hala nola, zerbitzuaren hasiera eta helmuga zein izan den.

30. artikulua. TAXIMETROA

1. Taxi-zerbitzuko ibilgailuak taximetro aparailuz hornituta egon behar dira, behar den legez ikuskatuta eta prezintatuta egon behar da, ibilgailu barruko aurreko aldean kokatuta, bidaiariak prezioa erraz irakurtzeko moduan.

2. Taximetro aparailua argiturik egon behar da zerbitzua ematen den bitartean, gauetik goizera arte.

31. artikulua.- FUNTZIONAMENDUA.

1. Taximetro-aparailua funtzionamenduan hasiko da ibilgailua martxan jartzen denean hiritik kanporako ibilbideetan. Udalerrri barruko hiri ibilbideen kasuan, onartutako tarifetan finkatutako prezio finkora doituko zaio fakturazioa.

2. Zerbitzua prestatzen ari den bitartean, erabiltzaileari ezin lepora dakiokkeen istripu, matxura edo beste inguruabarren batzuk gertatu badira, taximetroak markatzen duen preziotik deskontatu egingo da, zerbitzuaren amaieran, zerbitzuaren prestazioa inguruabar horregatik suspentsioan egon den denborari dagokion zenbatekoa.

3.- Zerbitzua eskatu egin bada telefono hitzarmen bidez, fakturazioak bere barruan sartuko du ibilgailua dagoen lekutik bezeroa hartu behar den lekurainoko bidaia. Edozein kasutan ere, zerbitzua hasi aurretik bezeroari informazioa emango zaio ondoriozko azken prezioaz.

32. artikulua.- TAXIMETROAREN OHIKO AZTERKETA.

1. Taximetro-aparailu guztiak, Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak edo beste Erakunde baliokideren batek egin dezakeen azterketa edo berrikuspina egin



ahal izatearen kalterik gabe, urtero berrikusiko ditu Udalak.

2. Lizentzien titularrek obligazioa dute gainditzeko Ikuskapen Zerbitzuek edo Udaltzainek hala eskatzen dietenean, Eusko Jaurlaritzak zein udal ikuskaritzak egindako ikuskapena.

33. artikulua. TAXIMETROAREN APARTEKO IKUSKAPENA.

Udalak edozein unetan agindu dezake taximetro guztiak edo baten bat berraztertzeko, nagusiki ondoko gorabeherak egiaztatzeko helburuarekin:

- a) Aparailuak argi eta zehatz markatzen duela bidaiako kostu moduan ateratzen diren kopuruak, indarrean dauden tarifa ofizialen arabera, bai egindako ibilbideengatik bai geldi edo itxaroten egondako denboragatik bai, bereizita, emandako zerbitzu osagarriengatik, baimenduak izan balira.
- b) Prezintu ofizialen egoera.
- c) Kaxa-aparailuak zulorik, mailaturik edo jo, indartu edo manipulatu izaneko seinalerik ez izatea.

34. artikulua. AKATSAK.

Urteko edo aparteko ikuskapen edo norbanakoren baten salaketaren ondorioz, taximetroaren kaxa-aparailuaren kokapenean, funtzionamenduan edo bestelako baldintzaren batean akatsen bat ikusten bada, ibilgailu berehala erretiratuko da zerbitzutik; ezin izango da bueltatu zerbitzura harik eta akatsa ikusi zuten udal zerbitzuek eta agintaritzak, egindako konponketari onarpena ematen dioten arte.

VI. TITULUA ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

35. artikulua.- ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

1. Taxi zerbitzuaren erabiltzaileek eskubide hauek dituzte :

- a) Lizentziaren zenbakia eta zerbitzuaren tarifak zein diren jakitekoa.
- b) Maletak eramatekoa, ordenantza honetan finkatutakoaren ildotik.
- c) Zerbitzuaren ordainagiri edo faktura eskuratzekoa prezioa, abiapuntua eta helmuga, hala nola zerbitzuko lizentziaren zenbakia jasotzen dituena. Faktura Udalak ezarritako eredu eta numerazioa izango duena izan beharko da.
- d) Ordenantza honetako 23. artikuluan jasotako aurreikuspenekin bat, aukeratzea zerbitzuaren prestazio hoberako egokien iritzitako ibilbidea.
- e) Gidariari ibilgailuan ez erretzeko eskatzekoa.
- f) Zerbitzua garbitasun-baldintzak eta kontserbazio-egoera egokiak dituen ibilgailuan hartzea.



- g) Ibilgailura modu eroso eta seguruan sartu ahal izatekoa. Zentzu honetan, zerbitzua ematen duten gidariek, ibilgailura igotzean eta ibilgailutik jaistean, lagundu behar diete mugikortasun murrizteko pertsoneri eta hurrekin doazeneri, hala nola erabiltzaileek tokiz aldatzeko behar dituzten aparailuak, gurpil-aulkiak edo haurkotxeak, ibilgailuak horretarako duen lekuan kargatzen.
- h) Ibilgailu barruko argia pizteko eskatzekoa, ibilgailura sartzerakoan nahiz bertatik ateratzerakoan, baita zerbitzua ordaintzerakoan ere.
- I)- Taxian sartzeko nahiz bertatik ateratzeko pertsonen eta ibilgailuaren segurtasuna eta zirkulazio egokia behar bezala bermatuta dauden lekuak baliatzekoa.
- j) Itsu-txakurra edo laguntza emateko diren bestelako txakurrak eramatekoa, ahalmen urritasunen bat duten pertsonen kasuan.
- k) Gizalegez tratatua izatekoa.
- l) Egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egitekoa auto-taxien Erreklamazio-orrien Liburuan zein Laudio Udalean. Erreklamazio-orriak hiru kalko orri-inprimaki izango dira. bat Administrazioarendako, bestea gidariarendako eta hirugarren erabiltzailearendako. Erabiltzaileak erreklamazio egin ostean, zerbitzuaren titularrak Udaletxera bidali behar du dagokion kopia 30 eguneko epearen barruan.

36. artikulua. ERABILTZAILEAREN BETEBEHARRAK

Hauexek dira erabiltzaileen betebeharrak:

- a) Zerbitzuaren prezioa ordaintzea, indarrean dauden tarifen arabera.
- b) Gizalegez jokatzeko zerbitzuak dirauen bitartean, gidariari eragozpenik sortu eta enbarazurik egin gabe, inolako arriskurik sor ez dadin, ez gidariaren edo ibilgailuaren segurtasunari, ez zerbitzuaz kanpoko beste inoren segurtasunari dagokionez.
- c) Ibilgailuko ezer ez manipulatzeko, apurtzea edo hondatzea.
- d) Gidariaren instrukzioak errespetatzea zerbitzuaren prestazio hobea izan dadin, beti ere, horrekin, aurreko artikuluko aipatutako eskubide bat ere urratzen ez badu.
- e) Adingabeekin lagunduta bidatzen duten erabiltzaileek horien portaeraren erantzule aterako dira; galarazi egin behar diete galarazi egin beharko diete ateen segurantz gailuak manipulatzeko, leihoak igo edo jaistea, giltza edo etengailuak sakatzeko nahiz gidariari enbarazu egin eta hark arreata galtzea ekar lezakeen zaratarik egitea.

37. artikulua. DEBEKUAK.

Auto-taxiko lizentzien titularrek guztiz debekatuta dute:

- a) Indarrean dauden tarifei jarraiki, dagokiona baino prezio altuagoa exijitzea edo eskatzea, aitzakiaren bat jarrita.
- b) Zerbitzuak ematea, Bidaiarien Garraio Publikoa Autoan Hirian eta Hiriz Kanpoko 2/2000 Legean, ekainaren 29koan, eta aplikaziokoa den gainerako araudian agertzen den ez bezalako eran.



- c) Jan edo edatea, zerbitzu ematen den bitartean.
- d) Taxien gidariak zerbitzuaren erabiltzailearentzako arrotzak diren hirugarren pertsonarik ezin izango dute eraman eserita, salbu eta ikaste fasean badago, eta, edozein kasutan ere, aldeztu aurretiko bezeroaren berariazko baimena duela.

VII. TITULUA ZIGORTZEKO ERREGIMENA, ARAUBIDEA

38. artikulua. ARAU-HAUSTE KONTZEPTUA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

1. Administraziozko arau-haustek dira Ordenantza honetan tipifikatu eta zehatutako egiteak edo ez-egiteak, doluzkoak edo zuhurtzia-gabeziagatikoak.

2. Ordenantza honetan ezarritakoaren arau-hausteagatiko administrazioaren erantzukizuna Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Herri Administrazioen zehatzeko ahalaren 2/1998 Legean, otsailaren 20koan xedatutakoak arautuko du.

39. artikulua. SAILKAPENA.

Ordenantza honetan xedatutakoaren kontrako arau-haustek oso larriak, larriak nahiz arinak izan ahalko dira.

40. artikulua. ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK.

Arau-hauste oso larriak dira:

- a) Zerbitzuak egitea nahitaezko lizentzia eta baimenik gabe, edo iraungita daudenean.
- b) Beste pertsonen izenean emandako lizentziak erabiltzea, edo ibilgailua gidatzea lizentziaren titularrak ez direnek edo horretarako izendatutako edo baimendutako gidariak ez diren pertsonak zerbitzuak eginez.
- c) Ikuskatu, zaindu eta kontrolatzeko eta Udaltzaingoaren zerbitzuak jasotzeko uko egin edo oztopatzea, esleituta dauzkaten arauzko eginkizunak burutzea galaraziz.
- d) Ez aurkeztea, bidezko arrazoirik gabe, Udalak deituriko ohiko edo ezohiko ikuskapenetara.
- e) Ordenantza honetan arautzen diren zerbitzuak ematerakoan lege-hauste penalak egitea, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren bat.
- f) Autoaren nahitaezko aseguru ez edukitzea.
- g) Arau-hauste larria egitea, berau baino aurreko hamabi hilabetetan erantzule berbera zigortua izan denean, ebazpen irmoz administrazio-bidean edota auzibidean, artikulua honetako 2. lerroaldearen hizki berean tipifikaturiko arau-hauste larriagatik.
- h) Zerbitzua mozkortuta edo estupefazianteen eraginpean ematea.

41. artikulua. ARAU-HAUSTE LARRIAK.



Arau-hauste larritzat joko dira:

- a) Lizentzia eta baimenei atxikitakoez beste ibilgailuren batekin ematea zerbitzua, baita agiri horietan zehazten den lurralde eremua ez errespetatzea ere.
- b) Ordenantza honetan arautzen diren jarduerak erabateko dedikazio guztiaz eta eskusiboaz ez burutzea, baita bertan baimentzen ez diren zerbitzuak ematea ere.
- c) Baimena eskuratu ondoren hirurogei egun naturaleko epearen barruan zerbitzua eskaintzen ez hastea edo/eta zerbitzu horien eskaintza hiru hilabetez geldiarazita edukitzea, bertan behera utzita, horretarako pisuzko arrazoirik egiaztatzen ez dela; azaldutako guzti hori dokumentazio agirien bidez egiaztatu beharko da.
- d) Zerbitzuari buruzko kexuak eta erreklamazio-orriak erabiltzaileen eskura jartzeko ukatzea edo oztopatzea.
- e) Administrazioa -erabakitzen den moduan- kexa edo erreklamazio horien jakinaren gainean jarri beharrean, halakoak ezkutatu edo inolako arrazoirik gabe berandu helaraztea.
- f) Administrazioak ezarritako nahitaezko zerbitzuak eta finkatutako ordutegiak eta, hala bada kasua, atsedenaldi erregimena ez betetzea.
- g) Erabiltzaileen zerbitzuen eskabideei arretarik ez egitea, eta bidaiariak eskatu dioten zerbitzua egin gabe abandonatzea, salbu eta Ordenantza honetan jasotzen diren bidezko arrazoiakoren bat gertatu bada.
- h) Tarifen araubidea ez betetzea.
- i) Zerbitzuak, erabiltzaileentzat, ibilbide desegokietatik, ekonomikoki kaltegarrietatik egitea edo bidezko arrazoirik gabe haien ohartarazpen eta adierazpenei arretarik ez egitea.
- j) Okupatze eserlekuak zerbitzua kontratatu duen bidaiariak gain, hirugarren pertsonekin. Kasu horretatik salbuetsita geratzen da hirugarren pertsona hori taxilari ikaslea bada, zerbitzua eskaintzeko espazio nahikoa baldin badu ibilgailuak eta erabiltzaileak aurretik berariazko baimena eman badu horretarako.
- k) Ibilgailuaren edukierako plaza bakoitzeko kontratazio indibiduala egitea, aplikazioko araudian aurreikusitako kasuetatik kanpo.
- l) Hitz edo keinu lotsagabeak erabiltzea eta erabiltzaileei, oinezkoei edo beste ibilgailuetako gidariei mehatxuak egitea.
- m) Erabiltzaileek ibilgailuan utzitako edozein objektu erretentzea edo beretzat gordetzea, ordenantza honetan ebatzitakoaren arabera bost egun naturaleko epearen barruan Udalarari horren berri ematea eta jakinarazi beharrean.
- n) Taximetro edo/eta modulurik ez izatea, ez erabiltzea edo behar bezala ez funtzionatzea, hala nola ibilgailuan instalaturik eraman beharreko kontrol-baliabide edo tresnarik ez izatea, faltsutzea edo manipulatzeko, eta halako tresnak edo ibilgailuak aginduzko azterketetara ez eramatea.
- ñ) Bidaiariak hartzea udalerritik kanpo edo dagokion Prestazio Bateratuko Lurralde



Esparrutik at, salbu eta aplikazioko araudian baimenduak izan daitezkeen salbuespen kasuetan izan ezik.

- o) Derrigorreko aseguruak ez hitzartzea, Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera.
- p) Baimendutako bidaiari-kopurua baino gehiago garraiatzea.
- q) Arau-hauste arina egitea, berau burutu aurretiko hamabi hilabetetan erantzulea zigortua izan denean, ebazpen irmoz administrazio-bidean edota auzibidean, arau-hauste arinak tipifikatzen dituen artikuluko bereko beste arau-hauste bategatik.

42. artikulua.- ARAU-HAUSTE ARINAK.

Arau-hauste arintzat joko dira:

- a) Ordenantza honetan adierazten diren agiriak ibilgailuan ez eramatea, zerbitzuak egiterakoan.
- b) Dokumentazioa ageriko lekuan ez eramatea, hala egiteko obligazioa izanik.
- c) Auto-taxiaren elementu bereizle eta bereizgarriak ez eramatea ipinita, horren obligazioa dagoenean.
- d) Administrazioari nahitaez jakinarazi beharrekoak diren datuen berri ez ematea.
- e) Erabiltzaileei edo hirugarren batzuei begirunerik gabeko tratua ematea; arina izategatik akats larritzat tipifikatu behar ez denean.
- f) Gidari legez Udal sinistamendua edo egiaztapena ez trukatzeari, ezarritako epe barruan.
- g) Garbitasunik eza, gidariaren bere buruaren aldetik, zein ibilgailuaren barru eta kanpo aldean.
- h) Aurreko atalean aurreikusitako arau-hauste guztiak, euren izaera edo gorabeherengatik larritzat kalifikatu behar ez direnean, aplikaziokoa izango da kasu horietan otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 14 artikuluan xedatutakoa.

43. artikulua.- ZIGORRAK, ISUNAK.

1. Arau-hauste arinak zehatuko dira ohartarazpen bidez gehi 276,47 eurorainoko isunaz edo/eta gaitzen duen titulua kenduz, gehienez ere hamabost lan egunez.

2. Arau-hauste larriak zigortuko dira: 276,47 eurotik 1.382,33 euroraino arteko isuna jarritz edo/eta gaitzen duen titulua kenduz gehienez sei hilabeterako kenduz.

3. Oso larriak: 1.382,33 eurotik 2.764,66 eurorainoko isunaz edo/etata gaitzen duen titulua kenduz, gehienez urtebetez.

4. Ezartzen diren isunen zenbatekoa, aurreko paragrafoetan ezarritako mugen barruan, otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren arabera mailakatuko da.

5. Ordenantza honen arabera egokitzen diren zigorrak alde batera utzita, arau-hauste oso larriak behin eta berriro egiteak edo ezarritako zigorra urratzeak gaitzen duen titulua



errebokatzea, iraungitzea edo baliogabetzea ekar lezakete. Ondorio horiek izateko, ulertuko da behin eta berriro egin dela arau-haustea burutu aurretiko hamabi hilabeteen barruan, arau-hausle erantzulea zehapen edo zigor objektu izan denean oso larritzat sailkatu eta tipifikatutako arau-hausteagatik ebazpen irmo eta finko bidez.

44. artikulua.- ARAU-HAUSTE ETA ZIGORREN PRESKRIPZIOA.

1. Arau-hauste oso larriak hiru urtera preskribatuko dira, larriak bi urtera, eta arinak sei hilabetera.

2. Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zigorrak hiru urtera indargabetuko dira, arau-hauste larriengatik ezarritakoak bi urtera, eta arau-hauste arinengatik ezarritakoak urtebetera.

3. Bai arau-hauste bai ezarritako zigorren indargetze-epea zenbatzeari dagokionez, hala nola epea eten eta berrasteari buruzkoan, otsailaren 20ko 2/1998 Legean agindutakoa bete beharko da.

45. artikulua.- ESKUMENA ETA PROZEDURA.

1. Alkate-Lehendakariaren eskumena da Ordenantza honetan aurreikusitako isunak jartzea. Halaber, Alkatetza-Lehendakaritzak ezarriko du lizentzia baliogabe uztea.

2. Ordenantza honetan aurreikusitako zigorrak ezartzeko prozedura egokitu behar zaio Administrazio Prozedura Erkideari buruzko legerian ezarritako zehatzeko administrazio-prozeduraren arauak eta printzipioak ezarritakoari eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Herri-administrazioen Zehatzeko Ahalmenaren otsailaren 20ko 2/1998 Legean ezarritakoari.

3. Administrazio bidezko ebazpen irmoz ezarritako diru-zehapenak ordaintzea nahitaezko baldintza izango da lizentziak transmititu ahal izateko.

46. artikulua.- IBILGAILUA GELDIARAZTEA.

Zehapen ahalmenena egikaritzeari buruzko legedian ezarritakoren kalte barik, zehapen prozeduran har litezkeen zuhurtzia-neurrien inguruan, legean xedatutakoa gorabehera, zerbitzua ematen ari den bitartean detektatzen badira falta oso larriak edo larriak, ibilgailua berehalakoan gelditu atxikitzeko agindu ahal izango da, harik eta arau-hauste horren arrazoiak bide direnak desagertu arte; Administrazioak behar diren neurriak hartu ahal izango ditu zerbitzua hobeto eman dadin.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ez da egokia Laudio Udalaren udal lizentziadun ibilgailuetan publizitatea erakustea, salbu eta salbuespenezko eran emandako berariazko baimenaz eta interes publikoaren arrazoiengatik.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetako 3,d) artikulua garapenean, Laudio Udalak sustatuko du babes-



neurriak hartzea, hala nola gidariaren segurtasunerako pantaila babesleak, e.a., aurreikusiz beren beregi diru laguntza deialdia ekipamendu hori ipini ahal izateko, baldin eta aurrekontuetako aurreikuspenek hala baimentzen duten eta kontsigna nahikoa dagoen.

LEHEN XEDAPEN IRAGANKORRA. GIDARI SINESTAMENDUA EDO EGIAZTAGIRIA LORTZEA ORDENANTZA HAU INDARREAN SARTZEN DENEAN.

Ordenantza hau indarrean sartzen denean lizentzia titularrek edo gidari soldatapekoek dagokien gidari sinestamendua edo egiaztagiria edukiko dute, 10 bis artikuluan adierazitako frogak zertan egin behar barik.

Aipatu den egiaztapan horren amaitze edo iraungitze kasuan, 10 bis artikulua aplikatuko da bere osotasunean, hala bada kasua, dagozkion frogak egiteari ekinez.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. UDAL LIZENTZIAREN TITULARTASUNA ETA PERTSONA JURIDIKOAREN HIRI-ARTEKO BAIMENA.

1. Ordenantza hau indarrean sartzen denean pertsona juridikoren baten izenean dagoen udal lizentziaren bat edo hiri-arteke baimenen bat balego, horien titulartasuna izanik jarraitu ahal izango dute. Hala ere, Ordenantza honetan ezarritako baldintza eta betebeharrekin pertsona fisiko gidari bat atxiki beharko zaio, hori izango baita ibilgailua gidatzen baimendutako bakarra.

2. Lizentzia horiek ez dira transmitigarriak izango beste pertsona juridiko batzuen alde.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA. UDALEKO HIRI LIZENTZIA BAT ETA HIRI-ARTEKO BAIMEN BAT BAINO GEHIAGOREN TITULARTASUNA.

1. Ordenantza hau indarrean sartzen den unean Udaleko hiri lizentzia bat eta hiri-arteke baimen bai baino gehiagoren titularrek jarraitu ahal izango dute horien titulartasuna izanik. Hala ere, benetan, lizentzia horietako baten gidariak izan beharko dira eta gainerakoak ustiatu, prekario izaerarekin, soldatapeko gidari bitartez, Ordenantza honetan ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak betez.

2.- Edozein kasutan ere, lizentziaren titularrak benetan ustiatu ez duen lizentziaren soldatapeko gidaria edo ibilgailua ordezteak, suposatu eta erakarriko du ondorio legez lizentzia hori automatikoki Administrazioa bueltatuko dela.

Laudio, 2010eko ekaina